

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### Alkateordeak izendatzea

Alkateak 111 zenbakiko dekretua eman du 2019ko ekainaren 26an, zeinaren bidez alkateordeak izendatu baititu.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1.a) artikulua eta Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDren 35.2 artikulua araberara, alkateorde karguak ezinbesteko organo dira.

TAOLen 23.3 artikulua eta Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiaren 46. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, alkateak izendatzen dituzten Tokiko Gobernu Batzordeko kideen artean, halakorik ez badago, zinegotzien artean.

TAOLen 125. artikulua eta Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiaren 43.3 eta 46.1 artikuluek aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, hau

#### AGINTZEN DUT

Lehenengoa. Udal honetako alkateorde izendatzea ondoren zerrendatzen diren zinegotziak, alkatea ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo alkate kargua hutsik dagoenean hura ordeztatu dezaten, izendatutako hurrenkeraren arabera:

- Lehenengo alkateorde: Esther López de Gauna Beitia.
- Bigarren alkateorde: Ana María Martínez Sagasti.

Bigarrena. Dekretu honek izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratu ala ez gorabehera.

Hirugarrena. Dekretu hau eragindako zinegotziei jakinaraztea.

Laugarrena. Indargabetu egiten dira alkateordeen izendapenei buruz honen aurretik emandako dekretu guztiak.

Bosgarrena. Dekretu honen berri ematea hurrengo udalbatzan, Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiaren 38. artikuluan xedatutakoa betez.

Maeztu, 2019ko uztailaren 1a

*Alkate-lehendakaria*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**